


# HERNANIK kronika

2003 urtea  
Maiatzak 26  
Astelehena  
Alea: 781  
[www.kronika.net](http://www.kronika.net)



## MAIATZAK 25 - UDAL HAUTESKUNDEAK

### Bildu Hernanik lortu du babesik zabalena eta EA-EAJk gehiengo osoa izango du Udaletxean

■ Bildu Hernaniren aldeko papeletak, nuloak barne, 3.657 izan dira ■ Joxan Rekondok EA-EAJ koali-zioko zinegotzien botuak nahikoa izango ditu Alkate izateko.

BILDU Hernanik lortu du babesik zabalena Udal Hauteskundeetan eta EA-EAJk izango du gehiengo osoa Udaletxean, bederatzi zinegotzirekin. Boto baliogabeak 3.657 izan dira, eta hauetako Bildu Hernani plataformarentzat zenbat diren jakinarazi ez badute ere, Hernanin gehiengoa izan da, nahiz eta Udaletxean ez den izango, Auzitegi Gorenak baliogabetu ondoren. EA-EAJk 2.930 boto atera ditu eta bederatzi zinegotzi lortu ditu. Bildu Hernanik, bere botuak kontuan hartu izan balaria, 7 zinegotzi izango lituzke.

Udaletxean EA-EAJk bederatzi zinegotzi izango ditu, gehiengo osoa lortu du beraz. Bigarren indarra PSE-EE da 4 zinegotzirekin (urrekoan baino 2 zinegotzi gehiago); hirugarren indarra EB-IU izan da 2 zinegotzirekin (urrekoan batere ez zuen) eta laugarren indarra PP izan da bi zinegotzirekin (urreko Udal Hauteskundeetan bakarra atera zuen).

15.506eko zensotik 9.994 lagunek eman zuten bota atzo, parte haraztza, beraz, % 64,46-koa izan zen. □



Udaleko arduradunak inguratutako jendeari azalpenak ematen.

**UDALERAKO ZINEGOTZIAK:** EA-EAJ: Joxan Rekondo, Andoni Amonarriz, Iñaki Arratibel, Jose Ramon Lasarte, Iñaki Barrio, Jose Antonio Cuesta, Antonio Costa, Natalia Ugalde eta Patxi Artola. **PSE-EE:** Jose Morcillo, Jose Ramon Chica, Jose Perez eta Estefania Morcillo. **EB-IU:** Jose Maria Mercado eta Jesus Uzkudun **PP:** Pedro Ignacio Gandasegui eta Juan Dios Davila.

### BALORAZIOAK

#### Bildu: "Aurreneko indar gisa konsolidatu gara, oztopo guztien gainetik"

BILDU Hernani plataformak oso positibo baloratu du atzo herriarek emandako babesea. "1999tik jeitsi egin gara, baina, 2001etik igo egin gara. Oztopo guztien gainetik herriko aurreneko indar gisa konsolidatu gara. Herriarrek errekonozitu egin dute gure gestioa" adierazi zuten Mila Apezetxea eta Ixiar Miner zinegotzi eta Bildu Hernaniko kideak. Bildu Hernanik eskerrak eman dizkie egoera honetan konfiantza eman dieten guztie, eta plataforma aurkezteko sinadura eman zutenei.

#### EB-IU: "Guretzat oso emaitza positiboak izan dira"

EZKER Batua pozik zegoen Udaletxetarako emaitzakin, aurreko hauteskundeekin konparatuta asko igo delako. Txema Mercadok azaldu zuen Ezker Batuak lortutako botaok elkarriketarako eta ezkerreko politika bultzatzeko balioko dutela. Gehiengo absolutuak onak ez direla esanda, adierazi zuen Hernanin hitz egiteko beharra dagoela

#### PP: "Bi zinegotzi lortzea oso exitosoa izan da"

Pedro Gandasegui PPko buruak esan zuen PPko bi zinegotzi ateratzea "oso exitosoa" zela, "Hernani bezalako herri batean, PPko botante direnek kontu haundiarekin ibili beharko dutelako". Kargua hartuko zuela agindu zuen berriz ere.

EA-EAJ koalizioak esan zuen nahiago zuela balorazioak gauntik aurrera egin, eta Kronikak ez zuen PSE-EE-ko buruekin hitz egiteko modurik izan. □

### UDALA

#### PARTIDUA ZINEGOTZIAK

<b>EA-EAJ</b>	<b>9</b>
<b>PSE-EE</b>	<b>4</b>
<b>EB-IU</b>	<b>2</b>
<b>PP</b>	<b>2</b>
<b>BILDU</b>	<b>7</b>
<b>EA-EAJ</b>	<b>5</b>
<b>PSE-EE</b>	<b>3</b>
<b>EB-IU</b>	<b>1</b>
<b>PP</b>	<b>1</b>

### UDALA

#### BILDU HERNANIREN

#### 'BOTOAK' KONTUAN

#### HARTUTA

<b>BILDU</b>	<b>7</b>
<b>EA-EAJ</b>	<b>5</b>
<b>PSE-EE</b>	<b>3</b>
<b>EB-IU</b>	<b>1</b>
<b>PP</b>	<b>1</b>

**ETXE ONENAK, S.A.**  
GARAJE ITXIAK  
"OBLATOS" ETAN SALGAI  
Informatu eta saldu:  
943 33.22.37

Catalana Occidente



Bautista Biurrarena Etxegoien

Kardaberaz 40 - behe  
Tel.: 943 332440  
Fax: 943 556602  
Mobil: 610 292701  
20120 Hernani

**GSE**

Lan ahokularitza

Fiskala


Kontablea

Tel.: 943 550254  
Faxa: 943 335801  
Atzieta 51 - behe 20120 Hernani

## Gipuzkoako Foru Aldundirako Hauteskundeetan babesik zabalena AuB-k jaso du Hernanin

■ AuB-ren aldeko papeletak, nuloak barne, 3.289 izan dira; EA-EAJk 2.913 boto; PSE-EEk 1.530; PPk 746; IUk 743; Aralarrek 534; Plazandreoek 40 boto.

GIPUZKOAKO Foru Aldundirako Hauteskundeetan AuB plataformak izan du Hernanin babesik haundieta, nahiz eta ezingo duen Diputazioan izan. Bigarren indarra EA-EAJ izan da Udal Hauteskundeetarako boto berdintuekin. PSE-EE, PP, IU, Aralar eta Plazandreoek gelditu dira hurrenez hurren. Parte hartzea % 64,2koa izan da Hernanin. Gipuzkoako Diputazioan EA-EAJk atera du gehiengo osoa, 27 batzarkiderekin; PSE-EEk 12 atera ditu; PPk 8; EB-IUk 3 eta Aralarrek 1. □



## ■ PELOTA- PALETA GOMA HERNANIKO TXAPELKETA



Goiatz Manzisidor pelota jotzen, eta besteak begira. Tantoa erraz bukatu zuen atzo hernaniarrak.

## Manzisidor eta Martinezek aixa irabazi zuten

■ 30-14 menperatu zituzten Lasa eta Arozena ■ Datorren astean jokatuko da lehen faseko azken partidua ■ Herri Arteko pelota txapelketan Hernanik 3-0 irabazi, berriz ere.

HERNANIKO Txapelketako partiduak jokatu ziren atzo kirolegian. Lehen partiduan Etxegia-Mendizabalek 30-24 irabazi zieten Urkizu-Ruizi. Bigarren partiduan hernaniarrak izan ziren nagusi. Goiatz Manzisidor eta Amaia Martinezek asko estutu gabe irabazi dute Hernaniko Txapelketan. Datorren igandean jokatuko dute Manzisidor eta Martinezek lehen faseko azken partidua eta ondoren hasiko da azken fasea. □

erdik ere eman eta Arozenak asko jokatzen duen arren, ezin du 16 urterekin neurri honetako partidu bat puskatu. Hernaniarrek beren lana ondo egin zuten eta lehen partidua irabazi dute Hernaniko Txapelketan. Datorren igandean jokatuko dute Manzisidor eta Martinezek lehen faseko azken partidua eta ondoren hasiko da azken fasea. □

**Herriartekoan ere erraz**  
Larunbatean herriarteko txapelketako partiduak jokatu ziren kirolegian eta Hernanik 3-0 irabazi zion berriz ere Anoetari. Kadetetan 22-7 irabazi zuten, jubiletan 22-18 eta nagusietan 22-9. Datorren larunbatean Aiaren kontra neurtuko da Hernani, kirolegian. Anoeta baino kontrario gogorragoa izango dute. □

## KIROLA

## ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA	Taldeak	Emaitza	PELOTA	Taldeak	Emaitza
Gorengin liga Emakumak ezkoen liga 1. Errejonalak. Gazteen Ohoerako liga. Kadeen Ohoerako liga Kadeteen 2garren maila. Haurren Ohoerako liga.	Trintxerpe-Hernani Bukatuta Bukatuta Euskalduna-Hernani Hernani Realak Hernani Ondizka Bukatuta	3-2 2-5 0-0 2-5 0-0 2-5 0-0	Kadete Jubileak Nagusia Hernaniko txapelketa-paleta goma Alebinak Alebinak	Aizpuri-Gomontegia-Anoeta Aristea-Otegi-Anoeta Zabal-San Sebastian-Anoeta Etxegia-Mendizabal-Urkizu-Ruiz Lasa-Arozena-Manzisidor-Martinez Eremontea-Galarreta	22-7 22-18 22-9 30-24 14-30 35-25 32-40 40-32 24-30
ERRUGBIA	Hernani M uger Estatuko txapelketa Nagusia lagunartekoak Nagusia lagunartekoak	0-10 8ganen 0-7 3-40	1) Zalakain-Agirre 2) Zeberio-Ilurbe 3) Elizalde-Etxabe 4) Iruna-Aizpuri-Benizarra-Umetabizkaia II	Juanista-Urtua Lizaso-Eizagirre Aizpuri Aizpuri/Benizarra-Umetabizkaia II	35-25 32-40 40-32 24-30

## HITZ BITAN

### ✓ IPUIA BITERIN

**Ipuia kontalaria asteazkenean.** Etzi, asteazkena, Lur Korta ipui kontalaria ariko da Biteriko liburutegian, umeentzako ipui kontatzen. Lehen saioa 17:30etan izango da, 3-4 urte arteko neska-mutilentzat eta bigarren saioa 18:00etan, 5-7 urte artekoentzat.

### ✓ MENDIRIZ MENDI

**Mendi bizikleta irteera datorren asteburuan.** Mendiriz Mendik mendi bizikleta irteera antolatu du Orbaizeta ingurura. Larunbat arratsaldeko 17:30etan Atsegidegitik irten eta Orontzen afaldu eta lo egiteko asmoa dute. Igandean Olloko lepotik Orbaizetara egingo da bizikleta martxa. Izen ematea ostirala aurretik egin behar da Mendiz Menden. Prezia: 32 euro.

### ✓ ERRUGBIA

**Kadeteak Estatuko 8garren.** Partidurik irabazi gabe baina denak borrokatuta bueltatua dira hernaniar errugbilari gazteak Tarazonatik. Estatuko txapelketako finalak jokatu dira asteburuan eta hernaniarrei zorte pixka bat eta tantoak egitea falta izan zaie sailkapenean gorago bukatzeko, partidu guztiek juxtu galdu baitituzte. Kadeteek denboraldi dotorea egin dute aurtengoa ere.

### ✓ URUMEA IKASTOLA

**Hitzaldia ‘Eskolaren eragina familiar’ zer egin?.** Hitzaldia dago bihar Urumean, eskolak familiar duen eragina aztertzeko. Elkanoko ikastetxeko liburutegian izango da, bihar asteartea, arratsaldeko 19:00etan.

### ✓ ERROMESALDIA ARANTZAZURA

**Arantzazura erromesaldia ekainaren 1ean.** Arantzazurako peregrinazioa ekainaren 1ean izango da. Hernanik izen ematea Eguzki perfumerian egin behar da, Kale Nagusian. Autobusa Arantzazura eta bazkaria izango dira.

### ✓ HAURREN AURRESKUA

**Gaur hasiko dira San Joanetarako entsaioak.** San Joanetarako haurren aurresku entsaioak gaur hasiko dira. Entsaioak Gabriel Celaya ikastetxean dira, Karmelo Labakan. Gaur 19:30etan. Aurrez eman behar da izena.

### ✓ MAHAI TENISA

**Hernani Kirol Elkartea haserre.** Hernani Kirol Elkartea salatu du, maiatzaren 17an kirolegian ez zietela mahai tenisko materiala sartzen utzi. Kronikara bidalitako prentsa oharrean diote, Buruntzaldeko txapelketa Lasarten jokatuta gero materiala kirolegira zekarkitela 20:00etan, eta kirolegia irekia zegoela aerobitona izan zelako. Zuzendaria bera han zen KEak dioenez eta eginahalak eginda ere kalean gelditu ziren, 12.000 euroko materiala nora eraman ez zekitela. Azkenean, Donostiko Etxadiren instalazioetan utzi zieten tokia eta gaueko 00:00etan bukatu zituzten materiala deskargatzeko lanak. Kirolegiko zuzendaria jarrera Patronatuarekin hitzartzen ari diren konbenioaren kontrakoa dela azaldu die Kirol Elkartek Kirol Patronatuko arduradunei eta denboraldi bukaera artean gelditzen ziren mahai tenis txapelketak bertan behera utzi dituzte.

### ✓ ATLETISMOA

**Eider Aldabek brontzea Euskadiko Txapelketan.** Atletismoan, Eskolarteko Euskadiko txapelketak jokatu dira eta bi hernaniarrek hartzute parte. Eider Aldabe hirugarren gelditu da 1.000 metroan eta Laura Madina 5garren 150 metroan. Honenbestez, bi atleta gazteek erremate dotorea eman diote aurtengo denboraldi oparoari. □

## ZERBITZUAK

### TELEFONOAK

► Taxiak:

943 550093

► Udalzaingoa:

943 333288

► DYK:

943 464622

► Anbulatorioa:

943 006666

► Jokalari anonimoak:

943 331103

### FARMAZIAK

#### ASTELEHENIA

► Egunez: Bulnes

Florida auzoa

☎ 943 557738

► Gauze: Oa

Usurbil. Poligono 1, 1

☎ 943 376076

#### ASTEARTEA

► Egunez: Gomez Juste

Kale Nagusia 14

☎ 943 554892

► Gauze: Tanco

Urnieta. San Juan 36

☎ 943 550942

## IRAGARKI MERKEAK

Tabernako sukaldelan lan egiteko pertsona bat behar dugu. Interesatuek deitu goizez telefono honetara: 943 55 67 06